

9.755 lan istripu jaso dira EAEn urtea hasi zenetik

AGENTZIAK/LA HAINE :: 21/04/2025

Horrez gain, urtarrietik martxorako tartean, 46 langilek zauri larriak izan dituzte.

Osalanek bildutako datuen arabera, laneko baja eragin duten 9.755 lan istripu jaso dira Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) urtea hasi zenetik. Hala, batez beste, eguneko 108 baja erregistratu dira. Datuok honakoei egiten diete erreferentzia: lantokian izandako ezbeharrak, joan-etorrietan jazotakoak eta berriz gaixotzeak. Era berean, urtarrietik martxorako tartean, zazpi langilek galdu dute bizia lanean ari zirela, eta horrez gain, 46 langilek zauri larriak izan dituzte.

Zerbitzu sektorean izan dira istripu gehien (4.337 baja); Industrian, ondoren (2.729), Eraikuntzan (964) eta Lehen Sektorean (123).

<https://eh.lahaine.org/9-755-lan-istripu-jaso>